

ttipi ttapa


2004ko maiatzaren 20a • XXIV. urtea



Suhiltzaileak greban Oronozen

03

Bertze funtzionarioen neurrian soldata eguneratzea eta formazio lanak egitea eskatuz greba hasi zuten Nafarroako suhiltzaileek, tartean Oronozko parkekoek ere.



Txirrindulari taldeak Leitzaldetik

33

Erakurri elkarteak Azysa-Swell-Kider errepideko afizionatu mailako taldea eta mendi bizikleta-ko Swell-Pagozelai Goizabal-Palplastic taldeak atera ditu.

04

Arantxa Zubietarekin Sendabelarrak ezagutzen



MUEBLES A METS

**Iarunbat
arratsaldetan
irekia**

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERATik da**
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



**Sukaldeak, Egongelak,
Logelak, Bainugelak**

Zurezko bainuko konjuntok neurrira eginak



ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

DATUAK...

- Hogeita zazpi suhiltzaile ari dira Oronozko parkean, bertz brigadatan banatuak.
- Dantxarineatik Bera arte eta Belatetik Ezkurra bitarteko eremua hartzen dute, Nafarroa guziko parkeen arteko haundiena.
- Nafarroako bertze suhiltzaileak bezalaxe, greban daude maiatza hasieratik. Bertze funtzionarioen neurrian soldata eguneratzea eta formakuntza aldetik lan gehiago egitea eskatzen dute, bertzeak bertze.



Ornozko suhiltzaileak greban

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

«Ez dugu nahi suhiltzaileak bigarren mailako funtzionario bihurtzea»

Joseba OLAGARAI

Maiatz hasieratik greban zaudete Oronozko suhiltzaileak, Nafarroako bertze bonberoak bezalaxe. Zer-gatik?

Orain dela bi urte aurrekordioa sinatu zen, bai komisioren aldetik bai Gobernuaren aldetik eta ez da betetzen ari. Guk akordio hori betetzea nahi dugu eta horretan ari gara.

Egunean lau ordurik ari zarete greban, zerbitzu minimoak mantenduz...

Bai, zerbitzu minimoa hiru pertsonakoa dugu eta parkean normalean lau izaten gara, beraz, batek bakarrik egiten ahal du greba. Horregatik, orain ematen ari den zenbaki-gerra horren aitzinean guk erraten dugu ehuneko ehuneko greba egiten ari garela, nahiz eta Gobernuak %25a bertzerik ez dela erran. Guk guttieneko zerbitzua bete bertzerik ez dugu betetzen eta greba egiten ahal dugunok egiten dugu.

Zehazki zer da eskatzen duzuen?

Bizpahiru gauza dira. Alde batetik, soldataren igoera. Hor bada zor historiko bat, zerbitzuetako bertze funtzionarioei soldata %12a igo zieten bere garaian, denei suhiltzaileei ezik,

«Afera lehenbailehen moldatzea espero dugu. Hobe izanen da guretako eta gizartearendako, hobe prestatutako eta ekipatutako suhiltzaileak izanen baititu»

eta ez dugu bigarren mailako funtzionarioak izan nahi. Hori urte batzuz ahaztuta egon da eta hori galde egiten dugu orai. Gero, formazioaren aldetik ez dugu laguntzarik eta egiten dena gure kabuz, gu mugituta, egiten dugu. Parke batzuen egoera ere kezagarria da, ibilgailuak. Duela gutti Nafarroako Gobernuak bultzatuta enpresa batek ikerketa egin zuen eta parkeak dauden bezala daudela adierazten zuen eta mantentzen zuten suhiltzaileok egiten dugula, zuzendaritzak gutti egiten duela.

Nola eta zein eremutan egiten duzue zuen lana?

Eremu nahiko haundia hartzen dugu, bertze lekuetan ez dute hainbertze hartzen. Guk Dantxarineatik Berara eta Belatetik Ezkurrara hartzen dugu, kilometro koadro dexente ditugu.

Gero, baserri aunitz ditugu, eta ez da berdin, adibidez, Tuterako lekuetara joatea edo hemen zenbait baserrietara joatea. Oso urruti egoten dira eta kosta egiten da hara joatea. Medikuek arazo berdintsua dute.

Greba orain egiten ari zarete, baina afera aspaldikoa da.

Bai, orain hiru urte ere arazoak baziren. Duela bi urte sinatu zen aurrekordioa, urte batera indarrean jartzeko. Urtea pasatu eta ez zen deus egin eta orain hori erreklamatzeko ari gara.

Irtenbiderik ikusten zaio egoerari? Noiz arte luzatuko da?

Joan den asterako egoera moldatzea espero genuen, baina negoziazioekin segitzeko geldialdiak uztea nahi zuen Kontsultazioak. Langileen batzordeak ez zuen onartu baldintza hau eta solasaldiak bertan behera gelditu dira. Suhiltzaileok ekintzak gogortzea erabaki genuen. Afera lehenbailehen moldatzea espero dugu, hobe izanen da bai guretako, bai gizartearendako, hobe prestatutako eta ekipatutako suhiltzaileak izanen baititu, baina borondatea behar da.



Beran duela lauzpabortz urte eman zen ikastaro batean murgildu zen sendabelarren munduan Arantxa Zubieta, nahiz eta betidanik gustatu izan zaion medikuntza alternatiboaren eta elikaduraren mundua. Gaur egun sendabelarren mundua jorratzeko talde bat osatzen dute ikastaro hori egin zutenetarikoz batzuk eta hor aritzen dira dozena bat lagun, elkarrekin bildu eta sendabelarrak erabiliz ukenduak, xaboiak, jarabeak, txanpuak eta abar egiten. Gure aitatxi-amatxien garaitik honat sendabelarrak erabiltzeko ohiturak beheiti egin du Arantxa Zubietaren ustez «erosotasunarengatik». Baina beratar honek dioenez, sendabelarrekin norbera arduratzen da bere osasunaz eta sendabelar aunitzek eritasuna ailegatu aitzinetik neurriak hartzeko balio dute.

ARANTXA ZUBIETA, SENDABELARRETAN ADITUA:

«Medikuntza orokorrek sintomara jotzen du, gaitzaren zergatia maiz bazter batera utzita»

Joseba OLAGARAI

Gure eskualdea eta, orokorrean, Euskal Herria hagitz aberatsa da sendabelarretan. Kontua da ezagutu, prestatzen ikasi eta erabili egin behar direla eta horretarako guttieneko ezagutza behar dela, Arantxa Zubietak dioen bezala: «Hagitz aberatsa da gure eskualdea. Sendabelar onak ditugu inguruan: jendeak belar txartzat hartzen duen baina primerako sendabelarra den osinetik hasi, eta ber-

tze hainbertze: azeri-buztana, ardi-mingaina, pasmo-belarra, txikori-belarra, kamamila...». Horretan hasi nahi duenak, oraintxe du tenorerik onena biltzen hasteko. «Denboraldirik onena udaberrian hasi eta urrira arteko tartea da. Garrantzitsua da, gainera, behar den baino sendabelar gehiago ez hartzea eta biltzen dituzun toki hartan beti bakarren batzuk uztea, berriz ere sor daitezela». Baina belarrak biltzen, prestatzen eta erabiltzen hasi

baino lehen, beraien ezaugarriak, prestateta moduak eta eragin ditzaketen kalteak ezagutzea komeni da, naturala ez baita beti onaren seinale: «Sendabelar hilgarriak ere badira. Aunitzetan aditzen den esaldia da "hau naturala da eta kalterik ez dit eginen", baina hori ez da beti hala, ondoak ere naturalak dira baina batzuk hilgarriak izaten ahal dira. Kasu eman behar da. Seguru egon behar da hartzen denaz eta hartzeko moduz».

Arantxa Zubietaren ustez, erosotasunagatik eta garai bateko sinismena galdu den neurrian, galdu du indarra sendabelarrak erabiltzeko ohiturak ere. «*Alde batetik, erosotasunagatik. Sendabelarrekin lan egiteko hauen inguruko ezagutza eduki behar da, bildu egin behar dira, prestaketak egin... Erraxagoa da sendagileak agindutako hura farmazian erostea. Bertzalde, sinismen kontua ere bada, nik uste. Garai batean erraten zen sinestuz gero sendabelarrak eragin handiagoa zuela hartzen zuen pertsonarengan*».

SENDABELARRAK ETA OHIKO MEDIKUNTZA ELKARTZEA

Ohiko medikuntzara edo sendabelarretara jotzea dagoen ezberdintasunak aipatzerakoan zera dio Arantxa Zubietak: «*Sendabelarrekin zerone arduratzen zara zure osasunaz, zure buruaren jabe zara. Honetaz gain, sendagilearengana beti eri gaudenean joaten gara, baina sendabelar aunitzek eritasuna ailegatu aitzinetik neurriak hartzeko balio dute eta, nik uste, aunitzez hobe dela gaitzak etorri baino lehen zeure gorputzarekin lan egitea. Nik uste garrantzitsua dela eritzen garenean, guk geuk aztertzea gaitz horren zergatia. Medikuntza orokorrak sintomara jotzen du, zergatia maiz bazter batera utzita*». Dena den, Arantxak badaki eritasun guziak ezin direla sendabelarrekin tratatu eta bi medikuntza mota hauek elkartzearen garrantzia azpimarratzen du: «*Badira gaitz hagitz larriak medikuntzaren beharra eskatzen dutenak, baina nik uste, irtenbidea bi metodoak elkartzea dela, kasu horietan ere medikuntza orokorrari aunitz laguntzen ahal diotelako sendabelarrek*». Arantxa Zubietak sendabelarren inguruko jakituria hedatu nahi izan du Xorroxin Irratian eta TTIPI-TTAPA TELEBIS-TAN egindako saioen bidez. Mikrofono eta kamera aitzinean izanen zuen erreakzioari buruzko kezka baldin bazuen ere, azkenean gustura aritu zen: «*Material dexente nuen euskaratua eta horrek aunitz erraztu zidan lana*». TTIPI-TTAPAKO «Sendabelarrak» telebista saioan «*mendira atera ohi ginen sendabelarrak batzera jendeak belar bakoitza bere ingurunean ezagutu zezan eta, ondotik, azalpenak ematen genituen sendabelar bakoitzaren inguruan: zertarako ziren, nola prestatzen ziren, ukenduak eta enplastoak egiten irakasten genuen...*».

ZEIN DA SENDABELAR EGOKIENA?

ESTRESARENTZAT	• Valeriana (kasu! Denbora luzean hartuz gero dependentzia sortzen ahal du), melisa, izpilikua...
AHULERIARENTZAT	Osina.
BURUKO MINARENTZAT	Zergatia aztertzea komeni da. Digestio baten arazoa bada milorria hartzen ahal dugu. Hilerokoa edo menopausiaren ondorio bada: matrikaria. Melisa eta golpe-belarra edo berbena ere egokiak dira.
BESTONDOARENTZAT IDORRERIARENTZAT	Onena lo egin eta kirol pixka bat egitea! Elikadura zaintzea da kontua: zuntz aunitz duten jakiak kontsumitu. Osinak aunitz lagun dezake, baita oliotan prestaturiko txikori-belarrak.
DEPRESIOARENTZAT	• San Juan lorea.
GAINPISUARENTZAT	• Axeri-buztana (atxikitutako likidoak botatzen laguntzen du) • Ulmaria.
BIRIKETAKO GAITZAK	• Aztunparen loreak, eztul-belarra, ardi-mingaina...
AZALA LEUNTZEKO	• Ilen edo kalendula, olua, azeri-buztana...
ILEA INDARTZEKO	• Osina, azeri-buztana
MENOPAUSIARENTZAT	Erregulatzaile hormonalak: kalendula, salbia, milorria.
BIHOTZEKO ARAZOENTZAT	• Elorri zuria.
HEZURRENTZAT	• Zerri-patata edo ilen deitzen dena, arnika.
BEGIENTZAT	• Eufrazia edo begi-belarra.
AHO eta EZTARRIKO INFEKZIOENTZAT	• Salbia.
GIBELARENTZAT	• Txikori-belarra.
ZAURI eta ERREDURENTZAT	• Aztunpa.
DIGESTIOARENTZAT	• Gengibrea, kamamila, milorria.



LANDARE ERDI TOXIKOAK: KONTU HANDIZ ERABILI BEHARREKOAK

ZELODONIA edo IODO BELARRA	Neurriz gain hartuz gero narkotikoa da, logale handia sortzen du. Beherakoa ere eragin dezake.
RUDA	Abortoa eragin dezake. Biltzerakoan ere kasu, landare hau ukitu ondotik eguzkitan jarriz gero erreduarak sortzen ditu.
PASMO BELARRA	Globulu gorriak hiltzen ditu.
ANDDUREA edo SAUKILLOA	Landare honen fruituak hilgarriak dira.
MIHURA	Bere fruituak kaltegarriak dira osasunarentzat.
SUGE-BELARRA	Eskularruak jauntzita bildu, azala gorritu eta erre baitezake.
XIXARI-BELARRA	Beherakoa eta goragalea eragin ditzake egunean gramo bat baino gehiago hartuz gero.
HUNTZA	Abortoa eragin lezake baita beherakoa eragin ere.
GIBEL-BELARRA	Freskuan toxikoa bada ere, behin idortu ondotik ez.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 6.000 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Raket Gofii.

Kolaboratzaileak: Raket Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitzia, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Male-rrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Giltzarri Abesbatzaren oharra

Joan den maiatzaren 8an Giltzarri abesbatzak kontzertua eskaintzeko zuen Igantziko elizan. Kontzertua bertan behera gelditu zen, abesbatzako zenbait kide gaitxo zirelako. Elizara kontzertua entzuterako joan zirenek, ez zuten bertan behera geratu zenaren abisurik jaso. Barkamenak Giltzarri abesbatzaren izenean. Barkatu eragozpenak. Hala ere, kontzertua atzeratu egin da. Honen berri jasoko duzue. Agur bero bat.

Giltzarri Abesbatza

Leitzako Asketa Abesbatza Parisen izan da

Asketa abesbatza 30 ahotsez osatutako taldea da, bertan, 15-32 urte bitarteko 21 neska eta 9 mutil ari direlarik. Par-taideak gazteak izanik, egonkortasun gutxiko korua da baina hala ere, oztopoak oztopo irautea lortzen du. Asketak jandak 22 urte beteak ditu (koru misto bezala hamar), azken 14 urteak Juan Bautista Irazokiren zuzendaritzapean joan direlarik.

Koruak beti atsegin izan du bidaiatzea eta Katalunia aldera 3 aldiz joanak dira, bestalde orain arte iteerarik luze eta garrantzitsuena Poloniara egin zuten. Abesbatzak bazeramatzan bi urte bidaiarik antolatzen ga-

be baina aurten lan horietan murgildu ziren buru belarri.

Leitzako Asketa Abesbatzako kideak, Parisko Euskal Etxekoekin kontaktuan jarri ondotik, bertara joateko eskaintza polita izan zuten. Baina ondoren, talde txikiak duten arazo larriena saihestea zetorren, diruarena. Hala eta guztiz ere, gogoia izanez gero hori ere moldatzen da, zozketa egin, diru pixka bat han eta hemen eskatu eta falta dena poltsikotik jarriz. Datekin gorabeherak izan ondoren, azkenean Apirilaren 14-tik 19-ra Saint Ouen-ra, Parisko Euskal Etxea kokatua dagoen herrira joan ziren.

Frantziarako autobusa abesbatzak ordaindu eta egonaldia, euskal etxean bertan egin zuten han egokitu zieten

gela batean lo eginez. Otorduak prestatzeko sukaldia ere beraien esku izan zuten eta aipatu beharra dago, otorduak, garbiketa eta abar, korukoek beraiek egiten zizuten eta ezin hobeki moldatu omen ziren, guztia, txandak, menuak, etab... primeran antolatuak bai zituzten.

Parisen hainbat tokitan abestu zuten, parke, metro, opera atarian... baina 2 kontzertu ofizial eman zituzten. Igandean Saint Denis Katedralean meza ondoren, eliz musikaz osatutako emanaldi interesgarria eskaini zuten.

Arratsaldean berriz, abesbatzak Saint Ouen-go Notre Dame du Rosaire euskal etxetik 50 metrotara dagoen elizan, kontzertu bikaina eskaini zuten. Kontzertu honetan euskara hutsezko

UDALBILTZA®
EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIESEN BILTZARRA

UDALBILTZA®k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltza.info.com

• IRAKURLEAK MINTZO •

abestiak izan ziren entzun gai eta gainera euskal instrumentuen, txistu, esku soinu, pandero, eta abarren laguntza izan zuten zenbait abestietan. Hau da, euskal folklorea abestien bidez ezagutzeko aukera ezin hobea izan zutela Paristarrek. Emanaldira, jendetza hurbildu zen eta izugarriko arrera egin zieten abesbatzakoei, entzuleek CD-ak eskatzen zizkieten (orain arte ez dute grabaketarik baina hurrengorako pentsatzeko gaia dela diote), beste batzuk eskua eman eta eskerrak ematera etorzen zitzaizkien eta Parisko euskaldun batzuk negar malkoei ere ezin izan zien eutsi.

Guzti honetaz gain abesbatzakoek egun libre batzuk ere erreserbatu zituzten Paris eta bertako toki, monumentu, museo, gastronomia, kultura eta ohiturak zertxobait ezagutu eta horietaz gozatzeko. Lan gehiegi egitea ere ez da komeni!

Paris, garesti sama-

rra den arren zoragarria dela diote abesbatzakoek eta ahaztezinak diren bidai horietakoa izan omen da. Antolaketa taldean aritu direnek espero baino hobeki ere aterra dela diote, ez bait dute inolako arazorik izan, eguraldia ere alde izan dutelarik.

Paristik Asketa Abesbatza indar berritu eta orri dela diote eta oraindik beste bidai bat antolatzen hasiko ez diren arren, hurrengo bat izanen dela garbi dute. Norra? Auskalo!!

**Ainhoa V.
Leitzako
Giltzarri Abesbatza**

• 11 GALDERA LABUR •

Zenbateko altuera duzu? Gaurko gazteen neurriaren barne al zaude?
1,83 metro. Nik uste baietz.

Korala utzi, berriro hasi... Zure ahotsa berezia al da?

Nere ahotsa normala da, denena bezalatsukoa.

Ikasle mundua oraingoz bukatua, lan munduan ari zara, gogorrena zein da?

Lan mundua gogorragoa egiten da.

Shin-Shan taldeko futbolaria zara, zein postuetan aritzen zara?

Eskuinetik aritzen naiz.

Muslari amorratua, edo denbora pasata bezala hartzen duzu?

Hasi nintzenean denborapasa, baina orain... afizio handia.

Koadrilan zure ahotsa gehien entzuten dena da, liderra al zara?

Nere ahotsa ez da gehiago entzuten, denena bezalaxe. Ez dugu lider beharrik, ongi eramaten gara eta.

Ehiztari hitzak zer gogoratzen dituzu?

Nire afiziorik handiena. Urteko hila-beterik gogokoena niretzat.

Lagun bateri, zer birtute eskatzen diozu?

Konfidantza.

Zerk amorratzen zaitu?

Parrandak.

Nesken gaiaz aparte, ze gaiak gogoko dituzu?

Kirola, ehiza... denek bezala.

Zer eskatzen diozu geroari?

Osasuna... eta ongi bizitzea.



Iker BARANDIARAN

Aresoko abeslaria, futbolaria eta muslaria

Foruen Plaza 2 • BERA
tel.: 948 625 542
faxa: 948 625 541



Helbide berria:

Zalain auzoan,

Aceralia fabrikaren parean

© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333

BERA

**DROGUERIA
MOLINERO**

PINTURAK

DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guziak

2.000 kolore

baino gehiago lortzen ahal duen makina

10 minututan

zuk nahi duzun kolorea

Profesionalentzat prezio berezia

KULTURA

Aizkolegi taldeak Bidasoari buruzko Bertsopaper Saria antolatu du

Lanak maiatzaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira

ttipi-ttapa

Aizkolegi taldeak, natura babesteko bertze ekitaldiekin batera, Bertsopaper Saria antolatu du aurten lehen aldiz. Hiru mailatan banatuko dituzte parte hartzaileak. A mailan, 8 urtetik 12 urte bitarteko neska-mutikoei parte hartuko dute eta guttienez bi bertso egin beharko dituzte. Irabazleak oroigarria eta liburu lote bat jasoko du. 12 urtetik 16 urte bitarteko B mailan lau bertso aurkeztu beharko dira guttienez eta lehen saria oroigarria eta liburu sorta izanen da. Hamasei urtetik goitiko C mailan guttienez sei bertso osatu beharko dira eta sari nagusia oroigarria eta 150 eurokoa izanen da.

Bertsoek Bidasoa erreka hartuko dute gaitzat eta partehartzaileek nahi adina bertsopaper bidal ditzakete. Lanak maiatzaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetan: Aizkolegi Taldea;



ARGAZKIA: D. NAVARRA

Nafarroako ikasleei zuzendutako Ipuin Historikoen hirugarren lehiaketan, euskarazko lanen artean lehendabiziko saria eskuratu du Berako Toki Ona Institutuan ikasten duen Jon Etxague Goia aranztarrak –aitzinean, ezkerretik hasita lehendabizikoa–, «Errege izateko jairo nintzen» idazlanarengatik.

Bertziko Partzuergo Turistikoa; Bertziko Natur Parkea; 31720 OIERE-GI. Harremanetarako 948 592323 telefonora deitu behar da edo consorciobertiz@cin.es posta helbidera idatzi.

Lanak makinaz idatzita aurkeztu beharko dira, bi lerro zuri utziz. Lan bakoitzaren orijina-

la eta kopia bat bidali behar dira eta izengoitiz sinatuko dira. Aparteko gutunazal itxi batean datu hauek jarriko dira: egilearen izena, adina, helbidea, telefonoa eta beharrezkoak diren gainontzeko xehetasunak jarriko dira eta gutunazalaren kanpoaldean izengoitia ida-

tziko da.

Epaimahaia Aizkolegi taldeak izendatuko du, horretarako pertsona adituak aukeratzuz. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izanen da. Epaia ekainaren 6an emanen da jakitera, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, Bertziko Natur Parkean.

III. Ipuin eta Marrazki lehiaketak antolatu ditu Iturengo Ibintzak

ttipi-ttapa

Iturengo Ibintza taldeak hirugarren urtez ipuin eta marrazki lehiaketak antolatu ditu. Ipuin lehiaketan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek «Estralurtar batekin bizitzen» gaiari buruz idatzi beharko dute eta 3. eta 4. mailakoek «Ispilu baten aurrean» gaiari buruz. Marrazki lehiaketan, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek «Uda» izanen dute inspirazio iturri eta H a u r r Hezkuntzakoek gai librean izanen dute. Lanak aurkezteko epea ekainaren 4an akituko da eta sari banaketa, berriz, ekainaren 12an egingen da Iturengo Herriko Etxeko G a n b a r a n , 18:00etan. Bertze aldetik,

SAROBÉ
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Alzuri

Sukalde fresneria
eta opariak
Landare eta loreak

Tfnoa: 948 630 370
BERA



Kantonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

ZJ
Zalain
jatebrea
Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

Tf. Zalain 948 630 370
Bera - Nafarroa

TEL K
K MISET K
ISE
K MISKE K
N AI UZUNK U U, NEU I CT ISEINU ERIN
T l - F x 3 15 21

BERA

Lau pertsona hil dira maiatzean bi istripuetan

Oskar Goñi zinegotzi ohiari ongietorria egin diote

Amaia eta Ainhoa

Aurtengoan maiatzak hasiera beltza izan du beratarrontzat, joan zen maiatzaren 1eko arratsean hiru emakumek bizia galdu bait zuten Larungo Gaietik betti heldu zirela. Larungo Udako Etxea Bentan lalnaldia akautu eta Bera bueltan zetozela, Nisan Terrano autoa bidetik atera eta maldan betti amildu zen. Ondorioz, Mari Lopez Ortega, sortzez madrildarra baina aspalditik Beran bizi zen 56 urteko emakumea, Natalia Chebanenko, 27 urteko ukrainiarra eta Ximena Portero Tobar 24 urteko gazte ekuatoriarra, zendu ziren. Azken emakume honen urte terdiko semea, Ander, onik atera zen istriputik. Auto gidaria, Maria Luisa Rudi Arrondo 59 urteko emakumea, ospitalean operatu eta badirudi pixkanaka osatzen ari dela eta Maria Teresa Tellexeak, adin bereko emakumeak, zauri arinak izan zituen.

Hori gutti balitz, astelehean bertze mutil gazte baten istripuaren

berri izan genuen. Eduardo Fagoaga, gazte beratarra, Xerezetik bueltan zetorrela, moto istripu baten ondorioz zendu zen.

Oskar Goñi zinegotzi ohiari askatu zuten

Iazko apirilaren 29tik atxilotuta zegoen Oskar Goñi zinegotzi ohiari eta joan zen apirilaren 20ean atera zuten Alcalá Mecoko espetxetik kasik urtebete egin ondok. Udalbiltzaren kontrako polizia operazioan Baltasar Garzón epaileak atxilotuarazi zuen Oskar Goñi gazte beratarra. Espetxetik ateratzeko, hala ere, 30 mila euroko fidantza ordaindu behar izan zuten bere senideek. Egun berean Espidobaita elkartearen ongietorria eskaini zitzaion. Jende aunitz bildu zen eta txalaparta, bertsolariak eta berendu-afaria ez ziren faltatu. Maiatzaren 15ean, larunbaterekin, ere omenaldi polita izan zuen Oskarrek. Arratsaldeko 19:30etan hasi eta hainbat ekitaldi egin ziren: bertsoak,



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Mugaz Gain

Mugaz Gain antzerki jaialdiak hamargarren urtea bete du aurten. Maiatzaren 6 eta 7an izan ziren lehendabiziko emanaldiak Kultur Etxean, baina antzerki gosez gelditu denak izanen du berriz ere Mugaz Gain jaialdiaz gozatzeko aukera, maiatzaren 20 eta 21ean leku berean. Bertzalde, Escena Dantza jaialdiaren barnean bi emanaldi antolatuta dira Beran. Maiatzaren 15ean Joakin Grilok "Grilo" flamenko ikuskizuna eskaini zuen eta maiatzaren 22an, Aldanza eta Sybaa konpainiak etorriko dira dantza garaikide saioa eskaintzeko, Kultur Etxean izanen da 20:00etatik aintzinerara. Sarrerak 3 euro balio du.

dantzak, oroigarrien eskaintza eta akautzeko afari ederra egin zen herriko jatetxe batetan.

Postari berriak

Berako Posta bulegotik jakinarazi dutenez, maiatzaren 10etik aintzinerara postari berriak ari dira lanean herriko korreoan banatzen. Lanpostu finkoak adjudikatzeo azterketa egin zen bere garaian eta orain arte herriko posta banatzen zuten hiru postariak postua utzi eta berriak sartu dira. Honek eragin ditzakeen eragozpenak eta hasieran, posta banatzerako orduan izaten ahal diren atzerapenak barkatzea eskatu dute posta bule-

gotik. Bi mila edo bi mila bortzehen erabiltzaile ingururi eragiten die lanpostu aldaketa honek, egunero, bi mila bortzehen bat bidalketa partitzen bait dituzte postari hauek. Honetaz gain, garrantzitsua izanzen litzateke helbideak eguneratzea banaketa lana errazteko eta gerta daitezkeen itzulpenak ekiditzeko.

Margo erakusketa

Datorren maiatzaren 22tik 30era Berako pintura taldeak margo erakusketa zabalduko du Kultur Etxeko erakusketa gelan. Pintura Taldeak dagoeneko 14 urte daramazki Kika Sas-

tre irakasle Hondarribi-tarrarekin lanean. Aurten 25 ikasle daude, 16 haur eta 9 heldu. Urtean zehar ikasi eta egingo dako lanak ikusgai jarriko dituzte eta aurtengo gaia librea izango da. Helduek nagusiki loreak eta figurak jarriko dituzte ikusgai gutti gora behera 35 obratan eta haurrek batez ere mugimendua isladatzen duten lanak aurkeztuko dituzte. Honetaz gain, Juan Larramendi margolari beratarra haurrek nola ikusten duten eta Picassoren eragina agertuko dira erakusketan. Astelehenetik igandera 18:00etatik 20:00etara zabalik egonen dira Kultur Etxeko atek.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRIAK

Bera - Tfnoak: 948 630 735 - 407 406 781

BAR Botxo OSTATUA

☎ 948630052 • Zalain • BERA

LESAKA

Maiatzaren 29an Gazte Eguna antolatu dute herriko gazteek

Ken7, More eta Nok taldeek kontzertua eskainiko dute

Aitor AROTZENA

Lesakako Gaztik taldeak antolatuta «Euskaraz antolatu!» lemapean Gazte Eguna 04 ospatuko da maiatzaren 29an, egitarau bete-beterekin. Goizeko 11:00etatik aitzinera hainbat ekitalditan parte hartzeko modua izanen da: frontoi giblean eskalada izanen da; udaletxeko arkupetan sormen birziklatua eta kamiseta tailerra eta 11:00etatik 13:00etara EHNAren tramitazioa egingen da Eskol-ttikin. Eguerdiko 12:00etan bertso pilota izanen da beheko frontoian. 15:00etan kantaldia eskainiko du Jonuk Arrano elkarteak. 17:00etan plaza ingurura hedatuko da besta giroa, bertan tailer ezberdinak, kamisetak, taloak, irratia eta malabarrak izanen baitira. 18:00etan erakusketa, haur antzerkia, perkusioa eta elkarrizketa izanen dira. 19:00etan sexu tailerra izanen da eta 20:00etan gaztesarea.com emanaldia Atxaspin. 20:30etan trikipoteoa eta karrika animazioa izanen da eta eguna borobiltzeko 22:00etan kontzertua izanen da




ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Espainiako Gerraren ondorioz Euskal Herriko hurrek bizi zuten sufrimendua eta erbestea taularatu zuten maiatzaren 8an Zambra aretoan Kukai dantza taldeak eta Ttanttaka antzerki taldeak. «1937 gogoaren bideziderrotik» izeneko ikuskizuna taularatu zen eta espero baino jende guttiago bildu bazen ere, bertan izan zirenek emanaldi ikusgarriaz gozatu ahal izan zuten. Zuzeneko musika Juan Mari Beltran musikariaren eskutik izan zen, koreografia Jon Maia dantzari bikainaren eskutik eta gidoia Mireia Gabilondo aktore eta gidoigilearen eskutik.

frontoiaren gibelaldeko aparkalekuan Ken7, More eta Nok taldeekin

eta DJ Axular disko jar-tzailearekin. Joan den hilabeteko Gazte Olin-

piada arrakastatsuen ondotik, gazteek lanerako prest segitzen dute.



PERTSONAIA

Belen COMPAINS

Atentzio goiztiarra programaren aurkezpena

Ortzegun honetan, maiatzak 20, Atentzio goiztiarra edo «Atención temprana» programaren aurkezpena egingen du Belen Compains pediatrik Herriko Etxean, 19:30etan. Elaia elkarteak antolatu duen ekitaldian, azken urteotan prestatu duten osasun programa honen berri emanen dute. Bertze aldetik, kultur egitarau zabala izanen dugu hemendik hila-bete bukaerara. Maiatzaren 26an, asteazkenarekin, Sequenza klarinete emanaldia izanen da 18:30etan Kasinoan eta maiatzaren 29an, larunbatarekin, Mairu haur antzerki tailerraren emanaldia Arkupetan 18:00etan.

Entzierrorik ez da izanen aurtengo Sanferminetan

Besta Batzordea horretan saiatu baldin bada ere, aurtengo Sanferminetan ez da entzierrorik izanen, lege araudiak ez baitu horretarako baimenik ematen. Hasieran, Albistur karrikan barna egitea zen Besta Batzor-

dearen asmoa, baina zezenen aitzinean ibili ohi den jendeak bertze ibilbide bat proposatu zuten: Matxinbeltzeneatik Igan-tzi alderako norabidean abiatu eta Morrontxoneatik Ote karri-kara sartu, handik zuzenean pla-

zaraino joateko. Baina segurtasun arauak ez ditu betetzen ibilbide honek. Halere, plazan zezanak izanen dira, aurten egun bat gehiago gainera: peñen egunean arratsaldez. Bestek ere egun bat gehiago izanen dute.

ANA
Janariarena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zuzi
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ENTZERIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

BOBKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ETXALAR

Ekainaren 6an eginen da aurtengo Gasna eta Artisau Feria Eguna

Pakita Alzugurenek Estankoa ireki berri du Elutsa Ostatuan

Joseba eta Nerea

Urtero bezala ekainaren lehenbiziko aste hondarra aukeratu du Altxata Kultur Elkarteak Gasna eta Artisau Feria Eguna antolatzeko. Aurtengoa XII. edizioa izanen da eta egitarau zabala prestatu dute egun guzirako. Goizean eskualdetik nahiz kanpotik etorriko diren artisauek hartuko dute herriko frontoia eta euren lanak erakutsiko dituzte eguerdi parterarte. Bertzalde, egunari izena ematen dion lehia-keta eguerdiko 13:30-etan gauzatuko da. Izan ere, orduan emanen dira epaimahaiak erabakitako sariak. Hauek goiz osoa izanen dute gasna probatzen ari-zeko eta gasna era-

mateko berriz, goizeko hamaikak arte izanen da epea. 12:30etan herriko trikitilariak saioa eskainiko dute frontoian. Eguerdiko 14:30etan herri-bazkaria eginen da frontoian bertan eta artisau guziak nahiz herriko hainbat lagun bilduko dira bertan. Izena eman nahi dutenek Altxatako juntakide batengana jo beharko dute edo bertzenaz Herriko eta Elutsa ostatu-eran erosi beharko dute txartela. Eguna akautzeko, dantza-saio polita eskainiko dute herriko dantzari ttiki-ek arratsaldeko 17:30etan. Aipatu, egun guzian ikusgai egonen dela eskulanetan aritzen diren emakumeek prestatutako erakusketa Andre



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Duela sei urte hartu zuen Pakita Alzuguren herritarrak Elutsa ostatua. Ordutik ostatua martxan izan du baina estanko-lizentziarik ez zuela eta, zerbitzu hori itxia izan du orain dela bi aste arte. Joan den maiatzaren 6an hasi ziren estanko gisa lanean, momentuz tabakoa, sobre eta seiluak salduz.

Mari emakumeen elkartean.

Altxata elkartearen bazkide kanpaina

Urte andana pasatu da Altxata Kultur Elkarte sortu zenetik. Orduz geroztik, kulturarekin zerikusia duten hainbat ekitaldi antolatu ditu, beti ere herria bizitu nahirik. Hala ere, herriko zenbait sektoretan ez dagoela hagitz integratua jakinarazi digute eta hutsune hori betetzeko bazkide berriak sartzeko kanpaina paratu du

martxan. Horretarako bazkide-orriak banatu zituen aitzineko TTIPI-TTAPAN aldizkariarekin eta interesatuek orri hauek bete eta junta-kide bati eman beharko dizkiote. Bertzela, Kultur Etxe azpian dagoen buzoian utzi beharko dituzte.

Jaunartzeak

Heldu den maiatzaren 30ean eginen dute sei hurrek beren lehenbiziko jaunartzea. Aurten hauek izanen dira: Matiseneko Izaro Iribarren, Errotagaraiko Miren Lasaga, Antso-

neko Bordako Iñaki Gallardon, Behekoetxeko Itsaso Elizagoien, Arburuko Oier Iturria eta Arretxeberriko Unai Alzuguren

Zuzenketa

Aurreko alean Etxalarko erroaldioen ezau-garri bat beso mugikor-rrak izatea dela erran genuen, Bortzirietako gainerako herrietan bezala, baina informazioa ez da erabat zuzena. Nafarroa osoan bortz herritan daude bakarrik ezaugarri hau daukaten erroaldioak eta horietako bat Etxalar da.

Altxate, 19-948630786 • BERA

© 948631076 • BERA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERKA LESAKA
IMANOLA, TRILLETXEA ZUZAYA

Gasola etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

HERRIKO
JAIKONE - JAIKOTEKIA

Arretxeberriko, 11 • 948 63 74 60
Etxalar • NAFARROA

ARANTZA

Bigarren Mendi Itzulia izanen da hilabetea bukatzeko

Ekainaren 7ko Ternida egunerako bazkaria antolatu du Ekaitza elkarteak

Nerea ALTZURI

Gero eta hurbilago dute mendigoizaleek tontorrez-tontor Arantzako itzulia egiteko eguna. Ekaitza mendi taldeak eta Gazte Asanbladak antolatu eta hainbat laguntzaile dituen ekimena da. Maiatzaren 30ean izanen da mendi ibilaldia eta azken ukituak ematen burubelarri ari dira antolatzailerak. 6:30etatik 8:00etara izanen da ateratzeko tenorea herriko plazatik eta Anibar, Unanu, Itsazelaia, Izu, Oirlargata, Ibiltza, Ekaitza, Mendaur, Mairubartzeta eta Zepurutik igaroz berriz ere herrira itzuliko dira ibiltariak, 32 kilometro inguruko ibilaldia egin ondotik.

Bien bitartean, tenoreari begira antolatzen diren hainbat mendi ibilbideetan bertze bat Mendaurrera izanen da ekainaren 7an. Ohitura izugarria dago herritik eta inguruetatik Ternidara joateko. Azken urtetan bezala, Ekaitza el-



UTZITAKO ARGAZKIA

Fjord musika taldeak, bere estreineko emanaldia eskeini zuen joan den apirilaren 23an Arantzako Aterpean. Talde berria da Fjord eta taldeko musikariren artean Iban Zugarramurdi aranztar baterijolea partaide eta taldearen sortzailetako bat da. Urteetan izen haundiko euskal talde beteranoetan aritutako partaideek osatzen dute Fjord taldea: Etsaiak, Sutagar eta Ekon. Iban Zugarramurdi, 29 urteko aranztarra ttiki-ttikitik murgildu da musika saltsan eta zehazki baterijole lanetan. Geroztik, Mecaniciens, Baldin Bada, Paralelos, Anje Duhalde, Alaitz eta Maider eta Sutagar taldeetako baterijolea izan da eta bertze hainbat taldetan kolaborazioak egin ditu.

karteak bazkaria antolatu du egun horretan Senberroko bordan. Bazkaria bertan egingen da eta ondotik trikitilariak izanen dira. Bazkarian parte hartu nahi duenak maiatzaren 30a baino lehen izena Xabi Altzuriri edo Patxi Mutuberriari eman behar dio.

Saritutako historia lana

Nafarroako Unibertsitateak azken urteetan egiten duen lehiaketa batean sari nagusia herrian gelditu da bertze urte batez. «Escribe un relato histórico» izeneko lehiaketan, euskarazko adarrean Jon Etxague gazteak hartu

du sari nagusia «Errege jaio nintzen» izeneko istorioarekin. Azken bi urtetan ere saridun nagusiak aranztarrak izan dira lehiaketa berebeteen: Mirari Maizek duela bi urte eta Aintzane Iturriak iaz jaso zituzten sariok. Hiru lagunentzat Madrilan asateburu bateko egonal-

Kanposantu berrituaren inaugurazioa

ttipi-ttapa

Maiatzaren 8an egin zen hilerri berrituaren inaugurazio ekitaldia. Udal agintariek batera, Alberto Catalan, Toki Administrazioako kontseilaria izan zen ekitaldian. Zabalte lana egiteko, 80.000 euroko inbertsioa egin da eta Nafarroako Gobernuak 31.535,11 euroko dirulaguntza eman du. Sasoi Eskabazioak izan da lanak egin dituenak, bertzeak bertze 374 metro koadro gehiago emanez hilerriari.

dia eta liburu sorta bat jaso ditu Jonek sari moduan.

Bidasoako txirrindulari Bira

Bidasoako Itzuliaren 32. edizioa egin zen joan den astean, hilaren 12an abiatu eta 15ean bukatzeko. Bigarren etapak herrian izan zuen helmuga, Hendaiatik abiatuta. Biharamonean, ortziraletan, etaparen abiada ere herritik egin zuten txirrindulariek Hondarribiara joateko.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxes: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ALBERGEEA JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA

J. RAMOS
zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut
Tfnoa: 948 631 342 BERRA - Tfnoa: 948 637 173 LESAKA

IGANTZI

Bizikleta Jaitsiera proba ekainaren 5ean izanen da

Euskal Herriko Jaitsiera Txapelketa izanen da aurten jokoan

Oskar TXOPERENA

Buru-belarri ari dira lanean Biltoki Elkarteko kideak heldu den ekainaren 5ean herrian izanen den bizikleta proba prestatzen. Aspaldi samar banatu zizkietan laguntza eskariak etxe komertzialei eta beharrezkoak diren baime-nak ere hartuak dituzte. Orain arte izandako bi probak hilabete bat beranduago egin izan dira, baina aurten aintzindu egin dute proba. Aldaketa tekniko tiki batzuekin, ibilbide bera izanen du laiterketak: Frain kaxkotik aterako dira eta Barazarrearen atarian akautu.

Ez ditu Biltoki Elkar-teak honengatik tradiziozko ibilaldiak aldera batera utzi. Joan den larunbatean hogeita bortzen bat lagun ziren Goizuetara joatekoak, udaberriroko bidean. Ez da garai batean bezala autobus betetzen, baina ez dago gaizki ere. Egun ederra pasatu izanen dute, dudarik gabe.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Gogor entsaiatzen ari da Igantziko Abesbatza azken bolada honetan. Izan ere, bi kontzertu garrantzitsu ditu heldu den hilabetean, biak Lizarran. Lehenbizikoan, ekainaren 5ean, Giltzarri Abesbatzarekin batera abestuko du Lizarrako kultur ekitalden barrenean, seina kanta banaka eta pare bat elkarrekin. Ekainaren 19an, berriz, egingen da ohikoa bihurtzen ari den Abesbatzen Elkartaratzea. Orain arte udazkenean egin izan da, baina aurten Lizarrako Abesbatzak data aldatu nahi izan du bere ekitaldien egutegira hobe-kiago egokitzeke. Lizarrako Abesbatzakoek udazken aldera etortzeokoak dira kantatzera. Bertzalde, Giltzarri Abesbatzak maiatzaren 8an Igantzin eman behar zuen kontzertua bertan behera gelditu zen zenbait kantariren gaixotasuna zela medio.

Kanpaldi garaia eskolan

Hasiak dira dagoneko eskolako haurrak kanpaldietan. Bigarren zikloko haurrak -3. eta 4. mailakoak- Honda-

rrabian ziren egotekoak aste honetan berean, 17, 18 eta 19an. Ondotik, 24, 25 eta 26an, lehenbiziko ziklokoak jonen dira leku berera. Eta azkenik, Haur Hez-

kuntzakoak, eskolako ttikienak egun pare bat pasatuko dute Zarautzen, maiatzaren 27 eta 28an. Badira maila honi dagokionez berri onak eskolan.

FLASH



Neskak bikain palaz

Maitzaren 2an Etxarri-Aranatzen jokatu-tako Euskal Herriko elkarte arteko finaleran Amaia Goienetxe eta Ane Sainzek txapela lortu zuten kadete mailan. Aurizberriko bikote baten aurka jokatu zuten finala. Erran behar da gainera 13 urte bertzerik ez dituela Anek eta maila honetan bertze urte bat jokatzeko ahal duela oraindik. Gazteagoak ere ederki ari dira, orain Hernanin eta Etxarri-Aranatzeko txapelketetan jokatzeko.

Itturrixar moldatzeagatik saria

Cedema-Garalurrek antolatutako deialdiaren barrenean, maiatzaren 13an Agoitzen 4.000 euroko saria eman zioten Igantziko Herriko Etxe-ari Berrizaun auzoko trenbidearen ondoan dagoen Itturrixar iturria moldatzeagatik. Lanak Herriko Etxeak finantziatu bazituen ere, berrizaundarrek eginga zuten moldatzeko eskaria eta baita eskulana ere auzolanean.

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekari-tza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

Alberto RETEGI

abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeke
- ✓ Zaharbarritzeke kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA

arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • **LESAKA**

LESAKA

SUNBILLA

Ameriketari ibilitako artzainek urteko besta egin zuten

Maiatzaren 1ean bildu ziren Ulibeltzak elkartearen

ttipi-ttapa

Garai batean Ameriketari ibilitako artzainek urteroko besta egin zuten maiatzaren 1ean Sunbillan, 1987 urtetik honat egiten duten bezalaxe. Ulibeltzak elkartearen 30 bat lagun bildu ziren, gehienak herrikoak, Iruribietako Fermín Zelaietak, Itzegiko Jose Mari Arretzek eta Istolako Jesus Mari Jorajuriak prestatutako otorduen inguruan. Sukaldariekin batera, Eskernekobordako Pedro Mari Altzuri, Iosporroako Manuel Arretxea, Ondartzeako Jose Manuel Elizondo, Galtzadako Jose Mari Jorajuria, Istolako Juanito eta Santos Jorajuria, Tresenbordako Eusebio eta Lu-

cio Irazoki, Estamoako Javier Agirre, Mugerdiako Juan Luis Altzugarai, Migeleneako Pedro Irigoien, Etxegiko Pantxo Arretxea, Arrigazteluko Miguel Irigoien, Erratzeneako Manuel Agesta, Joantxeneko-bordako Jose Mari Sainz, Iruribietako Eusebio Zelaieta, Mikele-neako Jose eta Juan Iru-reta eta Zubizargainako Eugenio Arretxea izan ziren ospakizunean, Igantzi, Lesaka, Ultzama eta Tiebasetik etorritako bertze batzuekin batera.

Beti bezala bazkari sendoa izan zuten eta hori laguntzeko, lur azpian egositako ogia, «Ameriketako artzain euskaldunen erara».



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Ameriketari izandako artzainen bestan bildutakoak goitian eta lur azpian egositako ogiak erakusten beheitian.

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

gaztelu sol
iturgintza
Kalefakzioa • Saneamendua • Gasa
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Lelxoak	Zakalxoak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandada' Muzioa
Zahar antzokoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako altzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

BELARRA
OSTATUA
JATETXEA
Amezitia karriko • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

GAZTANDEGIA
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

DONEZTEBE

PNVko udal taldea trafiko araudi berriaren kontra agertu da

Azken legealdietan eraikuntza politika kaxkarra egin dela uste du

ttipi-ttapa

Doneztebeko EAJ-PNVko udal taldeak Herriko Etxeak EAKo botuen bitartez gauzatze bidean duen trafiko araudi berriaren aurka jarrera agertu du. Ttipi-ttapan eta bertze zenbait komunikabidetan agertutakoa zuzendu nahizik, Alfredo Zugarramurdi zinegotziak errandakoaren arabera, «*lur azpiko aparkalekuak egitea ez da PNVk proposatzen duen irtenbidea. Lur gainean eremuak dituztenei lur hori komertzioendako aparkalekuak egiteko erosi eta trukean jabeendako lur azpiko aparkaleku batzuk egitea egokiagoa da*». Herriko trafiko arazoak azken legealdietan udalak izan duen politika kaxkarren ondorio dela uste du Zugarramurdi: «*Eraiki eta eraiki egin da, baina etxebizitza horietako bizilagunek autoa nonbait utzi behar dute. Eta arazo horri ez zaio irtenbiderik eman*».



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Udaberriko Feria egin zen maiatzaren 7an, eguraldi euritsu eta hotzari aurre eginez. Ez zen jende aunitz bildu, baina zenbaitazienda ikusi ahal izan ziren Merkatuko Plazan.

Bordaxoko aparkalekutik zubia egitea ere ez dela zentzuzkoa uste du PNVko udal taldeak, «*pixko bat goitixeago bertze zubi bat egin behar dela kontuan hartuz, metro guttitan hiru zubi izanen genituzke. Gainera, Bordaxoko jabeak momentuz ur-*

tebeterako utzi nahi du, eta gero zer? Urtebeterako 9 milioi pezeta gostatzen den zubia egin behar da, gero aparkalekuak erabiltzerik izanen dugun jakin gabe?». EA-rekin solasteko zailtasunak izan dituztela ere adierazi digu Zugarramurdi: «*Lau hilabete*

bilera eskatzen aritu eta behin bilduta hogeita minutuan akitu zen solasteko eta soluzioak bilatzeko batzorde bat osatzea ere proposatu omen zuen alkateak, biltaldeko lau zinegotzirekin, «baina orain arte ez da deus egin».

FLASH

La Union Kasinoaren urteko besta ospatu zen

Doneztebeko La Union Kasinoa elkarteak Bazkidearen Eguna ospatu zuen maiatzaren 8an, berrikuntza haundiekin. Orain arte, normalki irailan eta igandearekin egiten zen bazkariarekin ospatzen zuten egun hau. Azken urteetan, aldiz, udaberriera aldatu dute data, irailan bazkide aunitz oporretan izaten zirelako eta zenbaitetan Santa Leokadia egunarekin egokitzen zelako. Eta aurten, lehen aldiz, larunbatean egin zen afari batekin ospatu zen bazkidearen eguna. Afal ondoren, dantzaldia eta diskoteka izan zen.

Picarral abesbatzaren emanaldia

Nafarroako Abesbatzen Elkarteak eta Nafarroako Gobernuak, Diario de Noticias egunkariaren laguntzaz Nafarroan eta Aragoien antolatzen duten abesbatz kontzertuen artean, joan den larunbatean Zaragozako Picarral abesbatzak kontzertua eskaini zuen elizan. Emanaldi hau antolatzeak, erakunde hauek Mendi abesbatzaren laguntza ere izan dute. Maria Pilar Espallargas Inglesek zuzentzen duen abesbatz hau 1983 urte akabailan sortu zen eta Doneztebeko emanaldian, Rocio Garcia, Andrea Ferrer eta Ricardo Esvanero aritu ziren bakarlari moduan eta Cristina Cancio pianoan. Guzura 44 abeslarik osatzen dute Picarral abesbatza eta musika erlijioso, herrikoa eta Aragoikoa eskaini zuten Doneztebeko emanaldian.

616 513 497
Pititi
 ESKABAZIOAK
 C/Azuelo,
 31010 DONEZTEBE (NAFARRA)

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

MALERREKA

Ezpeluraldeko lau herrietako udal aurrekontuak onartu dituzte

Karrikak moldatzeko aurrekontua aldatu zen Beintza-Labaienen

ttipi-ttapa

Ezpelura ibarreko lau udalek, Donamaria, Oitz, Urrotz eta Beintza-Labaiengoek urteko aurrekontuak onartu dituzte berriki.

Donamariako Udalak 904.284,82 euroko aurrekontua izanen du. 666.998,10 euro inbertsioetara bideratuko dira. Abeltzaintzarekin lotutako bideak moldatzeko 304.633,76 euro bideratuko dira; Bengotxekobordako eta Pagoleako bideak eta Gazteluko hilerriko bidea zolaberritzeko 164.210 euro bideratuko dira. Aitzineko alean aipatu bezala, lan hauek aurtent-

go Toki Azpiegitura Planean sartu ditu Nafarroak Gobernuak eta 153.122 euro jarriko ditu. Mendiko lanetarako 99.349,48 euro izanen dira, errepideko kuneta moldatzeko 15.000 euro eta komunalen hitzarmenaren barnean, lur eremu berriak neurtzeko eta mugarrien bidez neurtzeko 37.636 euro bideratuko dira.

Oizko udal aurrekontua 695.199,50 eurokoa izanen da eta inbertsioak 540.233,96 eurokoak izanen dira. Bi izanen dira lan nagusiak: herriko ur-hornidura eta saneamendu sareak konpontzea,



ARTXIBOKOA

Leurtzako urtegiaren hobekuntzak egitea izanen da Urrozko Udalaren inbertsiorik haundiena.

276.013,30 euroko gastuarekin eta abeltzaintzako bideak moldatzeko, 208.426,19 euroko gastuarekin. Mendiko lanetara 44.292,44 euro bideratuko dira eta herriko plan municipalak eta bertze lanak egiteko ere diru-saila izanen da.

Beintza-Labaiengo Udalak 504.668 euroko aurrekontua izanen du. Inbertsioak 357.401,40 eurokoak izanen dira. 112.115 euro abeltzaintza bideak moldatzeko izanen da, 93.157 euro

kanposantua berritze-ko, 44.890 euro mendi lanetarako, 42.000 euro eskola moldatzeko, 23.762 euro ostatuak moldatzeko, gehien bat Labaiengoa eta 21.562 euro Plan Municipalak idazteko. Aurrekontu honi aldaketa bat egin zitzaion batzar berean eta herriko karrikak konpontzeko 292.937 euroko diru-saila sartu zen. Nafarroako Gobernuak 205.056 euroko dirulaguntza emanen du eta gainerako 87.881 euro-

ak udalak ordainduko ditu. Dagoeneko proiektua egin da eta orain lanak ematea falta da.

Urrotzen, azkenik, 233.544,85 euroko aurrekontua izanen du. Inbertsioak 110.179,22 eurokoak izanen dira eta horien artean haundiena, 100.000 euro, Leurtzako urtegiaren hobekuntzak egiten erabiliko da. Gas-propano instalazioa egiteko 6.000 euro pasatuak izanen dira eta mendi lanetarako 1.000 euro inguru.

SOULE
Hileta artea
© 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

CINE-BANK
LEITZA
Pelikulak salgai
1: 6 € • 2: 10 €
Tel: 948 510994

Elipo informazioen salmenta eta egitasmoa
PC - RAM
PC_RAM@hotnail.com
Tel: 948 450901
Elizabetza 4 • DONEZTEBE

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

Zurich Aseguruak

- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

Lan aholkularitza

- Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

- Errenta Deklarazioak, IVA...

Inmobiliaria

- Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

Gestoria

- Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

udana salazones
UNE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE GESTION DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

*Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

BERTIZ

Ingurumenaren Eguna ospatuko da Bertizko Natur Parkean

Maiatzaren 29an argazki rallya eta ekainaren 6an ateak zabalik jardunaldia egingen dira

ttipi-ttapa

Bertizko Jaurerriaren Natur Parkeak Ingurumenaren Nazioarteko Eguna era berezian ospatuko du aurten ere. Egun honen inguruan urtero antolatzen diren jardueraz gain, aurten bertze jarduera batzuk ere antolatuta dituzte.

Honela, Bertizko Jaurerriaren Natur Parkeko lehen argazki rallya egingen da maiatzaren 29an, larunbatarekin.

Ekainaren 4an, ortziralarekin, inguruko ikasleei zuzendutako egitaraua izanen da. 10:00etatik 13:00etara Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek ingurumen-tailerrez eta ipuin kontalariez gozatuko aukera izanen dute.

Ekainaren 6an, igandearekin, Bertizko jaurerriaren natur parkean ateak zabalik jardunaldia egingen da eta hainbat ekitaldi antolatu dira. Naturan jarduera lu-

dikoak egingen dira. Errate baterako, Aizkolegi-ko gainera bisitak egingen dira mikrobusean. Irteerak Bertizko lorategitik egingen dira 11:00etan, 12:30etan, 17:00etan eta 18:30etan. Joan-etorriaren iraupena ordu terdikoa izanen da, leku mugatuak dira eta 3 euro ordaindu beharri dira. Bertizko Jaurerriaren Natur Parkeko lorategira ere ordubeteko bisita gidatuak egingen dira doan, 12:00etan eta 18:00etan.

Kirol jarduerak ere bere tarteak izanen dute. Egun osoan haurrendako rafting, jautsierak piragua eta kanoan, arku-tiroa eta herri kirolak izanen dira. BKZk antolatzen dituen jarduera hauek guzientrue 3 euro ordaindu beharko da. Bertze aldetik, globoan igotzeko aukera ere izanen da, 10:00etatik 13:00etara, doan.



ARTXIBOKOA

Ekainaren 12an egingen da Bidasoaren Eguna.

Jarduera batzuetan leku mugatuak daudenez, parketik aldez aurretik erreserba egitea gomendatu dute, horretarako Bertizko Jaurerriaren Natur Parke-
ra, 948 592421 telefonora deituz.

Kulturjarduerak Bertizko Jaurerriaren Natur Parkeko landaren inguruan egingen dira. 11:00etan Zubietako jolalduak arituko dira, 11:30etan txistulariak eta 13:00etan musika izanen da Trikidantz taldearen eskutik. 13:30etan Lehen Argazki-Rallyaren eta Bidasoaren Eguna dela-eta egindako marrazki eta bertso lehiaketaren sariak ba-

natuko dira. 16:30etan musika izanen da berriz ere, Trikidantz taldearen eskutik. 18:00etan txistulariak arituko dira. Goizean taloak egin eta saltzeko postu bat izanen da eta eskulangileek eta artisauek egingutako produktuen erakusketa eta salmenta izanen da.

Bertzelako bisitak ere izanen dira Parkearen inguruan. Zubietako erroterra bisita gidatuak egiteko aukera izanen da, hala nola, taloak egiteko tailerrak eta asto gaineko paseoak eskainiko dira. Prezioak jakiteko eta argibidetakorako 948 451926 telefonora deitu behar da.

Bertzalde, Elgorriagako Onddo eta Ziza Kofradiak antolatuta Elgorriagako onddo-bidean ordubeteko bisitak egingen dira. Pertsona bakoitzeko prezioa 6 eurokoa izanen da eta guttienez sei pertsonako taldeak egin beharko dira.

Azkenik, ekainaren 12an, larunbatarekin, Bidasoaren Eguna egingen da. Baztan-Bidasoako ibai eta errekek garbitzeko jardunaldi hau duela lau urtetik honat ingurumen-boluntarioen programaren barne egingen da. Parte hartu nahi duten guziek Bertizko Turismo Partzuegora deitzen ahal dute, 948 592323 telefonora.

URBICAIN

zerbitzu estazioa



- Gasolindegian auto garbigailu berria
- Aspiradoreak
- Boxeak
- Alfonbrillak garbitzekoa

Kudeaketa Administratiboa

Erdi Mailako Zikloa

ORDUTEGI MOLDATUA GOIZEZ!!

NORENDAKO:

Autonoma, merkataritza, langabate, merkataritza eta enpresariak eta iturriak eta finantza enpresariak.

SARBIDERAKO BALDINTZAK:

DBK, Eskola gureak, IT-1 eta taldeak.

PLAN MAIGUA:

Julian 15 urte, 28000 aldizko erregistratze praktikak.

AURREINSKRIPZIOA:

maiztasun 2408 20rs.

LEA LEKAROZ 57 ELIZONDO BRL

Elizondoko Etxeak, s/n • 48700 ELIZONDO (Bizkaia)

948 58 18 01 • 948 58 18 40

www.ilea-lekaroz.com

KULTURA

Bidasoako Musika Eskolen laugarren Topaketa egingen da maiatzaren 22an

Bortzehun musikari baino gehiago espero dira Donezteben

ttipi-ttapa

Kurtsoaren amaiera hurbiltzearekin batera, Bidasoako Musika Eskolek beren besta ospatuko dute. Aurtengoa Doneztebeko Agorreta Musika Eskola izanen da ospakizuna prestatu eta antolatzeaz arduratuko dena eta horretarako azken hilabeteetan Musika Eskola honetako guraso, irakasle eta laguntzaileak lanean hasiak dira.

Maiatzaren 22an Bidasoak bustitzen dituen herrietako Musika Eskolak bilduko dira Donezteben: Irungo Udal Musika Eskola, Hondarribiko Musika Eskola, Hendaiaiko Udal Musika Eskola, Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskola, Lesakako Udal Musika Eskola, Elizondoko Udal Musika Eskola eta nola ez, Doneztebeko Agorreta Udal Musika Eskola. Guztira 550 musikari gazte baino gehiago eta beren irakasleak.

Bidasoako Musika Eskolen Topaketa 2001 urtean sortu zen eta Hondarribia, Bera, Lesaka eta Doneztebe izan dira besta hartu duten herriak.

Eguneko egitarauri dagokionez, 9:45tan Bearzana Frontoian paratuko den eskenatikian Alkateak partaideei Ongi etorria egingen die eta Agorretako ikasleek Agurra eskainiko dute. Jarraian, partai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den urtean Lesakan bildu ziren Bidasoako Musika Eskolak

deak talde desberdinetan banatuko dira, herriko xoko guziak musikaz betetzen saiatzeko.

10etatik 12etara Udaletxeko Aretoan Ganbara Musika saioak izanen dira, Bearzana frontoian Bandek beren doinuak eskainiko dituzte, Joera Berrieta-ko taldeek Santa Luzia

enparantza alaituko dute eta bitartean, trikitilari eta panderojoleak, txistulariak, eskusoinujoleak eta bandetako musikariak kalejiran ibiliko dira.

Eguerdi aldera musikari guziak Doneztebeko Udal Pilotalekura hurbiltzen hasiko dira, bertan 12.30tan egingen

den amaiera kontzertuan parte hartzeko. Saio honetan instrumentuz instrumentuz elkartu eta beren piezak joko dituzte, bukaeran musikari guziek abeslarien laguntzaz Behin betiko doinu ezaguna eskainiko dutelarik. Azken Kontzertu honetan gainera, Doneztebeko

Udaberriko Biraren emanaldiak heldu dira eskualdera

Azkeneko urteetan bezala, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printze erakundeak antolatutako Udaberriko Birako egitarauak antzerki, musika, zine eta folklore emanaldiak eramanen ditu 200 eta 1000 bizilagun artean dituzten herri eta kontzejuetara. Ttipi-ttاپaren eskualdeari dagokionez, maiatzaren 2an egingen ziren lehen emanaldiak. **Donamarian** Rosa Maria Martinez antzerki taldearen Ilargiaren lapurra antzezlanak izan zen ikusgai

frontoian eta **Sunbillan** San Blas abesbatza aritu zen elizan. Joan den igandean Ardanbera fanfarrak aritu zen **Igantzi**ko frontoian. Nafarroako bertze hainbat herrietan emanaldiak izanen badira ere, Udaberriko Bira ekainean itzuliko da eskualdera. Ekainaren 11n, Panta Rhei antzerki taldearen Txintxilipurdi erregea antzezlanak ikusgai izanen da **Beintza-Labaiengo** elizako arkupean, 20:00etan eta **Zubietan**, Anne-Luise eta Anton zine emanaldia izanen da 22:00etan fron-

toian edo euria egiten badu, udal-letzeko aretoan. Ekainaren 12an, **Areson**, Rosa Maria Martinez antzerki taldearen Ilargiaren lapurra antzezlanak ikusgai izanen da Herriko Etxeko aretoan, 19:00etatik aitzinera. **Zugarramurdi**n zinea izanen dute egun berean, Gorputz gudarostea pelikula eskainiko baitute 20:00etatik aitzinera Akelarre elkartearen. **Urdaubin**, ekainaren 13n, Panta Rhei taldeak Txintxilipurdi erregea antzezlanak eskainiko du frontoian, 11:30etan.

LEGASA

Kontzejua kudeatuko duen batzordea izendatu da

ttipi-ttapa

2003ko maiatzeko eta urriko udal eta kontzejuetako hauteskundeetara kandidaturarik aurkeztu ez zenez, Nafarroako Gobernua Legasako kontzejua kudeatuko duen batzordea izendatu zuen maiatzaren 3ko batzarrean. Monika Migeltorena Indart, Marino Elizondo Iriberrri, Esteban Sarratea Sarratea, Aintzane Martirena Hernandez eta Genaro Intxauspe Azkona izanen dira batzordea osatuko dutenak.

Dantzariak eta Mendi Abesbatzak ere parte hartuko dute eta Agorreta Musika Eskolako ordezkariak hurrengo urtean Bidasoako Musika Eskolen Topaketa antolatuko duen Irungo Udal Musika Eskolari emanen diote lekukoa.

XII. GASNA ETA ARTISAU FERIA

EKAINAREN 6an
ETXALARREN



Altxata
ETXALARKO KULTUR ELKARTEA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH

Lanbide Heziketan eskaintza ZABALA

Batxilergoetan eskaintza OSOA

LEKAROZ: ➤ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

➤ **BATXILERGOA**

- Zientzia eta teknologia
 - Zientzia eta Ingeniaritza
 - Osasun Zientziak
 - Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
 - Humanitateak
 - Gizarte Zientziak

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Iharduera Fisikoak eta Kirol Iharduerak
- Ingurune Naturelean Gidatzea

ELIZONDO: ➤ Lanbide Heziketa Egokitua

➤ **Lanbide Sarrerako Programa Berezia**
Bizitza Heldu eta Aktibora igarotzea

➤ **Lanbide Sarrerako Programak**

- Bulego eta Saltoki Txikirako Laguntzailea
- Soldadura eta Galdaragintza Laguntzailea

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Kudeaketa Administratiboa
- Mekanizazioa

➤ **Goi Mailako Heziketa Zikloa**

- Administrazioa eta Finantzak



INSTALAZIOAK

- ◆ **5 Laborategi:** Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- ◆ **6 Informatika gela:** Multimedia, sarea, Autocad, Internet
- ◆ **3 Marrazketa gela**
- ◆ **2 Teknologia gela**
- ◆ **Gizarte tailerra**
- ◆ **7 Ikusentzuteko gela**
- ◆ **2 Liburutegi:** 25.000 ale
- ◆ **Tailerrak:** soldadura, pneumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa, bizikleta,...
- ◆ **Kirol Instalazioak:** kiroldegia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pistak, zalditegia,...
- ◆ **Garraio Zerbitzua:** Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirriak.



I.E.S. LEKAROS ELIZONDO B.H.I.

Bigarren Hezkuntza Institutua



LEKAROS

Uhartea auzoa, z/g
31795 LEKAROS (Baztan)
☎ 948 58 18 03
☎ 948 58 18 36
✉ Posta Elektronikoa
ieslekar@pnte.cfnavarra.es

ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)
☎ 948 58 18 05
☎ 948 58 18 40
✉ Posta Elektronikoa
ieselizo@pnte.cfnavarra.es

Izen ematea:

- ◆ **Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa**
2004ko maiatzaren 24tik 28ra.
- ◆ **Goi Mailako Lanbide Heziketa**
2004ko ekainaren 1etik 11ra

OHARRA.- Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

GOIZUETA

Bai Euskarari Akordioa abiatu da herrian ere

Ainara Narbartek eginen du teknikari lana

Esteban AROTZENA

Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia, Imanol Legarreta alkatea, Eva Elizegi kultur zinegotzia eta Igor Elizegi Umore Ona elkartekoa mahaian zirela aurkeztu zen Goizuetan apirilaren 30ean Bai Euskarari Akordioa. Aurrean berriz, eta ez entzule gisa bakarrik, herriko hainbat merkataria, enpresari, erakunde ordezkari eta euskaltzale.

Han esandakoaren arabera, Bai Euskarari Akordioa gure hizkuntzaren aldeko konpromiso prozesua da, eta herriko gizarte eragilei zuzendua: enpresak, elkarteak, erakundeak, dendak, etabar... Teknikari lanerako hautatua izan den Ainara Narbarte Goizueta eta Arano eragile guztiekin jarriko da harremanetan eta akordioa egiteko gonbita luzatuko die. Ondotik, gonbita hau onartzen dutenekin, euskararen normalizazioan urratsak egiteko konpromisoak zehaztuko dira. Konpromisoak hartzen dituenak, Bai

tzaren aldeko konpromiso prozesua da, eta herriko gizarte eragilei zuzendua: enpresak, elkarteak, erakundeak, dendak, etabar... Teknikari lanerako hautatua izan den Ainara Narbarte Goizueta eta Arano eragile guztiekin jarriko da harremanetan eta akordioa egiteko gonbita luzatuko die. Ondotik, gonbita hau onartzen dutenekin, euskararen normalizazioan urratsak egiteko konpromisoak zehaztuko dira. Konpromisoak hartzen dituenak, Bai



Bai Euskarari Akordioaren aurkezpena Udaletxera bildu zen merkataria, enpresari, ordezkari eta euskaltzale batzuk ageri dira argazkian, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiarekin.

Euskarari ziurtagiria eskuratuko du.

Xorroxin Irratia

Aurten ere, azken urteetan bezala, Xorroxingoek irratia herriko eskolan izanen dute maiatzaren 24tik 31ra. Irratsaioak 12:00etatik 13:00etara izanen dira eta frekuentziaren berri jakinaraziko da.


Olio erabiliaren bilketa

Udaletxetik jakinara-

zi digitenez, sukaldean erabilitako olioaren bilketa hil honen azken ostiralean, 28an, eginen da, 9:00etatik 13:00etara.

Herritarren Zerrenda

Europar Hauteskuntzetara aurkeztu ahal izateko beharrezkoak zirela 40.000 sinaduretatik 103 herrian bildu ditu Herritarren Zerrenda izeneko ezker abertzaleko kandidaturak.



Xapo aldizkariaren 3. alea kaleratu berri da herriko kultur taldea eta Udal Euskara Zerbitzuaren elkarlanari esker. Aurrekoetan bezala, hirugarren Xapo honen 28 orrietan aurki daitezke hainbat elkarriketa, kontakizun, artikulua, inkesta, argazki, denborapasa...

ARESO

Igor Arraiago eta Iñaki Goikoetxeak irabazi dute aurten Pake-Toki elkarteko mus txapelketa

Santa Kruzeko erromerian jende gutxi izan zen

Juana Mari SAIZAR

Maiatzaren 1ean Pake-Toki elkarteko mus txapelketaren finala jokatu zen. 50 lagun bildu ziren afarian eta bukaeran sari banaketa egin zen. Txapeldunak Igor Arraiago eta Iñaki Goikoetxea izan ziren eta azpitxapeldunak Iazko txapeldunak, Iker Ba-

randiaran eta Xabier Gereño.

Santa Kruzeko erromeria

Maiatzaren 9an, Santa Kruzeko erromeria ospatu zen, eguraldia lagun zela, batez ere aste osoan ikusita nolako euriak bota zituen. Baina aurtengoan bazte-

retan hainbat ekitaldi eta festa zeudenez, oso jende gutxi elkartu zen. Egun horretan eta gauean, telebistatik ikusi ahal izan genuen Sopelako Torneoan Mikel Olazabal pilotaria partidu on bat egiten, baina ezin izan zuen txapela lortu eta txapeldunorde postuarekin konformatu be-



ARGAZKIA. JUANA MARI

Eguraldi ederra izanagatik, beste hainbat ekitaldi eta ospakizun egun berean zirenez, jende gutxi hurbildu zen Santa Kruzeko erromeriara.

har izan zuen. Oso ongi hasi zen, baina nekazari eta buelta ezin hartuz aritu omen zen bukaeran.

Informatika

Informatika ikastaroa

egiten ari dira Aresoko eskolan zortzi lagun, 24 orduko saioetan, baina oso gustora daudenez, orduak oso azkar pasatzen omen dira eta denbora gehiagoz ikasiko omen dute.

LEITZA

XXVI. Kultur Astea maiatzaren 21etik 30era

Aitziber Bergara arituko da enpresa eta komertzioak bisitatzen

Mikel ILLARREGI

Maiatzak 21, ostirala: 22:30etan Karidadeko Benta taldearen kontzertua zineman.

Maiatzak 22, larunbata: 9:00etan mendi ibilaldia umeentzat. 20:00etan piano kontzertua zineman.

Maiatzak 23, igandea: II. Ehoziri Egileen Topaketa. 12:00etan koardilen arteko herri kirolak. 14:30etan herri bazkaria. Amaluisa&Dixielangileak taldea.

Maiatzak 24, astelehena: 20:00etan "7 kolore" Jon Arretxeren diapositiba emanaldia.

Maiatzak 25, asteartea: 20:00etan «Ingurutxo lehena eta orain. eta gero?» mahaingurua.

Maiatzak 26, asteazkena:

20:00etan «Navarra 1936. De la esperanza al terror» liburuaren in-tzurgua hitzaldia Josu Txuekarekin Aurreran.

Maiatzak 27, osteguna: 20:00etan «Txina, dra-goia ernatzen delarik» diapositiba emanaldia, Jon Abril eta Asier Gogortzarekin zineman.

Maiatzak 28, ostirala: 15:00etan Detraka animazio taldea umeentzat. 20:00etan Jeiki abes-batzaren kontzertua.

Maiatzak 29, larunbata: Ingurutxo Basauri eta Leitzako taldeek eskainia. 21:30etan gazte afaria eta perkusioa Karrapen.

Maiatzak 30, igandea:



UTZITAKO ARGAZKIA

Aste honetan, Liñu-Putzu Elkarteak II. Ehoziri Egileen Topaketa antolatatu du. Ekitaldi hau aprobetxatu dute antolatzaileek "Maxurrenea Herrintzat" urteko egitarauarekin bat egiteko. Egitarauan aipatu bezala, hilaren 23an izanen da eta goizeko 10etan emanen zaio hasiera, Ongi etorria emanez kanpotik datozenei. Hamar bat herritik, 150 bat lagun gonbidatuta daude. Oparien zozketa izanen da egileen artean eta eguerdian, salgai jarriko dituzten txartelen zozketa. Talde honetan hamabost bat lagun ari dira egun, asteen hiru egunetan bilduz. Lerro hauen bitartez inguruko herrietan bizi direnak ere gonbidatzen dituzte, talde honetan parte hartu dezaten (948 610 621).

11:00etan XXIV. esku-langintza erakusketa. 12:00etan trikitilariak. 19:00etan txistulariak eta gaiteroak. Aste osoan ehoziri lanak, eskulanak, pintura eta Leitzako etxe eta baserrien argazkiak ikusgai egon dira udal aretoetan.

Leitzaldeko Hitza

Maiatzaren 21etik aurrera, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza deituko den egunkaria izanen dugu gure etxeretan, BERRIAK sustatzen duen zortzi-orrikoa. Leitzaldeko orria, Jaione Astibia zuzenduko

du, honetarako deialdian zehazten ziren frogak garaitu ondoren. Bulegoa, udaletxean izanen da, Karrape irratiaren ondoan. Hasieran, hilabete batez doan izanen da eta ondoren, urteko 40 euroko harpidetza zabalduko da.



Boumadani Benotmane (Aljeria)

Aljeriako mendebaldeko Saida hirikoa da Boumadani Benotmane. Duela urte eta erdi baino gehiago Parisa joan zen oporrak igarotzeko asmoz. Bertan lagunak zituen, baina hiru hilabete igarota Nafarroara etorri zen, Iruñean lagunak zituelako. Ondoren emaztea eta alaba ere, Leitzara etorri ziren. Emaztea, Bouhafsa Karima da Oran herrikoa eta alaba Rezia, sei urtekoa. Bi hilabete ditu Riad seme txikie-

ALJERIAKO KIDEAK (7)

nak. Hasieran Damik behin-behineko lanaren bila hasi zenean, paperak lortu ahal izateko, nahitaez nekazaritza lanetan egin behar zuen lan, eta mendian egin zuen, hain zuzen. Ondoren, txiki eta gazteen hezitzaile lanetan ari da. Aljerian, lan honetan aritzen zen eta era berean Psikologia ikasten zuen. Hamar pertsonako familiakoa, aita taxi toferra izan arren, etorkizunik ez zuen aurkitzen. "Hamar urteko gerra zibilaren ondoren, egoera ez da oso txarra, baina ezta ona ere. Lan arazoa nabaria da han. Lan horietan, oso gutxi irabazten zen".

Arabiarrak, frantsesa, gaztelera eta ingelesa pixka bat hitz egiten du. "Egunero, alabarekin, hitz pare bat edota esaldiren bat ikasten dut eus-

karaz. Guretzat euskara arazoa da baina alabarentzat ez". Karima pelukeriako lanetan aritzen zen. "Emakumeen ile-apaindegietan, noski. Han gizona zkoenengan gizona zko pelukeroak baitira eta emakumeenetan emakumeak". Karimak, arabiarra, frantsesa eta gaztelera pixka bat badaki.

"Biok, honantz etortzea, beste familia guztia han utzita, erabaki gogorra izan zen, dudarik gabe. Hala ere, oso gustura gaude hemen. Herriko jendeak ongi hartu gaitu. Hasieran, denok emaztea begiratzen zuten buruzapia eramaten zuelako. Uda garaian, askok eta askok galdetzen zioten ea berorik ez ote zuen pasatzen. Nonbaiten, zapirik gabe ikusi nahi zuten. Buruzapia, guretzat, beharrezkoa eta

nahita ezkoa da, emakumeek hamabost urte dutenez geroztik". Askotan Leitza bizi direla esaterakoan, "toki berezitzat hartzen dute edo hori jakinarazten diete; jende itxia, euskal jende itxia,..."

Hemen, lanik gabe izan denean ere, oso gaizki pasa dute. Hangoaz gogoratzean familiaren hutsunea somatzen dute, besterik ez. "Bizi ginen herria Leitza baino hamar aldiz handiagoa da, inguruan mendiak..."

Musulmanak direnez, hemen ere, hango ohitura errito eta egin behar guztiak egiten dituzte; txerrikirik ez, Ramadam-a, errezoak,...

Oraingo beren nahia, Karimak lanaren bat aurkitzea eta horrela ere beste jendearekin egotea, hitz egitea...

BAZTAN

Berroetako Mendekoste bestak maiatzaren 28tik 31ra

Larunbat arratsaldean argazki zaharren erakusketa eta margo lehiaketa egingen dira eskolan

Ostirala 28

21:00etan fuetiak botako dira beste hasiera emateko eta kalejira herriko trikitilariekin. **21:30etan** herri afaria: Baztanzopak trinketean denendako. **23:00etatik goizalderaino** gaupasa JOXE ANGELe-kin.

Larunbata 29

11:00etatik 13:30etara jolas parkea gaztelu puzgarri batekin eta quads pista. **16:30etatik 19:00etara** Ama-Lur Koordinakundeak eskainitako jolas parkea. **19:00etan** argazki zaharren erakusketa eskolan. **19:30etan** margo lehiaketa eskolan. **20:00etan** mus txapel-

keta. **21:30etan** herri afaria trinketean nahi dutenendako. **23:00etatik goizalderaino** gaupasa FRANCISCO SANTXOTENArekin.

Igandea 30

12:00etan Meza Nagusia Baztango koralarekin. **13:00etan** luntxnahi duten guziendako. **13:00etan** pilota partiduak, Baztango pilotari gazteekin. **18:30etan** herri kirolak, sokatira eta proba konbinatua. Taldeak: Aniz eta Berroeta. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia JOXE ANGELe-kin. **22:00etan** zinger jatea plazan eta goizalderarte JOXE ANGELe-kin dantzaldia.



Bi argazki zahar hauek sokadantza eta mutildantza erakusten dute Berroetako bestetan. Aurten ez da halako dantzak ikusterik izanen, baina bai argazki zaharrak, eskolan erakusketa paratuko baita larunbatean.

Astelehena 31

11:00etan bizikleta lasterketa. **12:30etan** mus txapelketaren finala.

14:30etan zikero jatea. **18:00etan** futbito partidua. **19:00etan** sokatira saioa: ezkonduak ezkongabeen kontra.

19:30etatik 22:00etara dantzaldia JOXE ANGELe-kin. **22:00etan** herri afaria. Ondoren dantzaldia, bestak akitzeko.

Almandozen lehenbailehen eskola berria eraikitzeko eskariak egin dira

Hezkuntza Departamenduak 2006rako utzi du lana

ttipi-ttapa

Almandozen eskolaren egoera «*negargarria*» dela eta lehenbailehen berria egin behar dela uste dute eskolako irakasle, guraso eta Almandozko eta

Baztango agintariek. Hezkuntza Departamentuko teknikariek eskola bisitatu eta iritzi bereetsua agertu zuten, baina departamentu orain jakinarazi den programazio ekonomikoaren

arabera, lanak ez dira 2006. urterarte hasiko. Erabaki honek ezustean hartu ditu herritarrak eta Udala, lanak berehala hasi behar direla uste baitute. 23 ikasle ditu eskolak gaur egun.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Almandozko Jauregian dago orai eskola. Berria, bertze eremu batean egingen da.

AZPIEGITURA

Argi mozketak direla eta biltzen hasi dira eskualdeko komertzio eta lantegiak

Beratik Legasa bitarteko argindar sare berria heldu den urterako paratuko dela jakinarazi dute Iberdrolatik



tti-pi-ttapa

Azkeneko hilabeteetan maiz eta denbora luzez gertatzen diren argi mozketen inguruan Iberdrolari salaketa eta erreklamazio bateratua egiteko asmoarekin Bortziriak, Bertizarana, Maierreka eta Baztan aldeko komertzio eta enpresak bilerak egiten hasiak dira. Lesakako merkatariek elkarrekin biltzeko dituzten bilerak hauek, eta argi-mozketak kaltetutako denda eta lantegiak hasiak dira elkarrekin lan egiten. Azkeneko bilera maiatzaren 6an egin zen Cederna-Garalur erakundeak Alkaiagako industrialdean duen egoitzan. Bulego honetan eta Lesakako udaletxean hainbat kezu aurkeztu dira. Hauek denak aztertu, argi-mozketak sortu dituen kalteak neurtu eta erreklamazio bateratua aurkeztu nahi zaio Iberdrolari. Izan ere, otsailaren 9an, martxoaren 6an eta apirilaren 28an gertatu dira azkeneko argi mozketak, azken bi hauek osoan argindarririk gabe egon zelarrik.

Bertze aldetik, Iberdrolako ordezkariak Lesaka, Bera, Doneztebe eta Baztango alkateekin bildu ziren. Enpresak uda honetan akautuko du Gipuzkoa eta Bera arteko argindar sarearen berritzea; uda ondotik, Bera-Etxalar tartea moldatuko dute eta Etxalar eta Legasa arteko tartea heldu den urterako utziko dute.

U L KUTX K I N E T S I F N K

1 I N E T S I F N E N
K U E T Z I L E
H E E N E N T Z K
S I

U L KUTX K F N EK
U T E S I

 L r S r - C n c s
G s c r t v , 2 3 k F n M s t n
E s n k K u t z I H r n

Z e z N f r e u r I K u t x r .
G u e r n u e r o e n e u r o s e u .

www.gur.kutxa.com

E u n r h
t e n e r r n

**NAFARRAK
RUR L KUTXA**

BAZTAN

Arizkunenea asteburueta ixtea kritikatu du Guazin Plataformak

Kultura interes ekonomikoen menpe jartzen dela uste du

ttipi-ttapa

Arizkunenea kultur etxea asteburueta ixteko udalak hartu duen erabakia kritikatu du Guazin Herri Plataformak idatzi baten bitartez. Balleko Etxeak kultura eta gai sozialak irizpide ekonomikoetara mugatzen dituela salatu du Guazinek eta joan den ortziraletik hasita, Baztango problematikari buruzko analisi eta eztabaida kanpaina bati ekinen dio. Idatziak dioenez, «gauregun daramagun bizimoduaren erritmoak ez du astertarantz ekitaldiak antolatzen uzten, beraz, nabariagoa gelditzen da Arizkunenea larunbatean ixteak dakarren kaltea». Izan ere, Guazinen ustez, kultur eta gizarte talde ezberdinek beraien bilerak egiteko edo kooperatibek batzarrak egiteko asteburu hartu behar dute nahitaez. Baztanen horrelako ekitaldiak hartzeko bertze lekuri ez dagoenez, egoera




ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

EHNE sindikatua egoitza berria ireki zuen maiatzaren 7an Elizondoko Giltxaurdi karrikan, Txokoto auzoan, Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortzirietako nekazari eta abeltzainei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko inentzioarekin. Sindikatuko hainbat kide izan ziren, tartean Fermin Irigarai Nafarroako EHNEko idazkari nagusia eta Natxo Larrainzar lehendakaria. Bulego honetatik Begoña Okiñena abokatuak zerbitzu juridikoak eskainiko ditu, Oier Monreal eta David Ruiz injeniariek proiektuak gauzatzeko bideragarritasun planak eta laguntzak. Aseguruak, ikastaroak eta gestio ofizialei buruzko informazioa ere eskainiko da EHNEko bulegotik.

«arraskezgarria» dela uste du Guazin taldeak. Arizkunenea aste hondarretan ixteko aipatzen diren argudioen artean jende eskasia eta ajuste ekonomikoak aipatzen direnez, Guazinen ustez horrek erakusten du «Balleko Udalak ez duela batera garbi kulturaren erranahia eta Baztan bezala, gizarte eta komunitate mai-

lan desegiten ari diren bailarak elkartzeko duen garrantzia». Plataformak ez du uste hau berria denik eta azkeneko legealdietan gauza bera egin omen du Eak.

lan desegiten ari diren bailarak elkartzeko duen garrantzia». Plataformak ez du uste hau berria denik eta azkeneko legealdietan gauza bera egin omen du Eak.



PERTSONAIA

Xabier ALTZUGARAI

Almandozko pilotaria txapeldun Kubako Kirol Olinpiadan

Nafarroako 22 urtez behetiko pilota selekzioak emaitza onak eskuratu ditu Kubako Kirolaren bigarren olinpiadan. Eskuz, binaka nahiz banaka urrezko domina ekarri zuten. Eskuz binakako finalean, Xabier Alzugarai almandoztarrak eta Ander Lopetegui lakuntzarrak 22-20 irabazi zioten bertze bikote nafarrari, Zufiaurre eta Etxeberriari, ordu eta laurdeneko partidu gogor eta ikusgarriaren ondotik.

Baztango Itzulia igandean

Baztango Mendigoizaleak Baztango XI Itzulia antolatu du maiatzaren 23rako. Azpilkuetan hasi eta akituko da, Atxuela, Otsondo, Lizartzu eta Urlegi igaro ondotik.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

ORDOKI LIKOREAK

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA

Parrilan egindako haragi eta arrainak

ONASKA

ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

BAZTAN

Gaztetxearen aldeko ekitaldiak antolatu dituzte Elizondon herriko gazteek

Elizondar bidaiarien diapositiba emanaldia izanen dira ortziraleroko

ttipi-ttapa

«Elizondon Gaztetxea orain» izenburupean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Elizondoko gazteek maiatz eta ekainerako.

Joan den larunbatean, bazkalondoan herriko plazan elkartu ziren muralak egiteko. Ondotik, Jon Barberena eta Jon Elizetxe bertsolariak girotutako merendua egin zen plazan eta ondotik poteoa egin da Baztango gaitariekin bateran. Mural sorta bat ere paratu dute herriko zokoetan.

Maiatzaren 21ean, ortziralararekin, elizondar bidaiarien ortziraleroko eginen den diapositiba zikloa hasiko da. 20:30etan Baztandarren Biltzarren egoitzan, Mariano Eseberriek «Iran, basamortuko herria» aurkeztuko du. Ziklo berean, maiatzaren 28an, 20:00etan Arizkuneneako hitzaldi aretoan Haritz Gazteluk «Inken itzala, Peru, Bolibia eta Txilen barna» aurkeztuko



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Iruritako dagoen Loizu udal hiltegiak tarifa berriak ezarri ditu bertan azien-dak hiltzearen truke

du. Larunbatean, maiatzaren 29an, 23:00etatik aitzin kontzertua eskainiko dute Abastoseko gorapean Kaskezur eta Ufestuek taldeek.

Ekainean sartuta, ekainaren 2an, asteazkenarekin, Monty Python eta Terry Gilliameri eskainitako zine emanaldi zikloa hasiko da. 21:30etan bi zinegile

hauek 1975an egindako «Los caballeros de la mesa cuadrada» eskainiko dute. Emanaldiak aire librean eskainiko dira asteazkenero. Honela ekainaren 9an, 21:30etan, «La vida de Brian» pelikula eskainiko da.

Ekainaren 11n, elizondar bidaiarien diapositiba zikloaren barnean, Joseba Otondok

«Bizikleta bat kontinente batendako: Greziatik Norddkapera, Norddkapetik Euskal Herrirat» aurkeztuko du 20:00etan Arizkuneneako hitzaldi aretoan. Ekainaren 12an, larunbatearekin, mendi ibilaldia eginen da. 8:00etan abiatuko dira Elizondoko plazatik Iratira, Iraunkotunturra mendia goititzeko.

Ekainaren 16an, asteazkenarekin, 21:30etan Terry Gilliamerek 1985ean zuzendu zuen «Brazil» filmea eskainiko da. Ekainaren 19an, larunbatearekin, erakustaldi kolektiboa eginen da. Inguruko artisten sormen eta artelanak ikusgai izanen dira, museo bihurtuko den herrian. Ekainaren 23an, asteazkenarekin, azkenik, zine emanaldien bukaera izanen da, Terry Gilliamerek 1995ean zuzendu zuen «12 monos» filmea eskainiko baita 21:30etan. Horretaz gain, liburu aurkezpenak, olerkiak, ikuskizun multimedialak, bizikleta martxa eta bertze hainbat kontu izanen direla jakinarazi dute Elizondoko gazteek.

Irratsaio berria Xorroxinen

Xorroxin Irratiak, hila-beteko azken ortziralean 10:00etatik 11:00etara «Matelezureko» amnistiaren aldeko irratsaio berria eskaintzen du.



asnap.me
servicio asociado a la persona y a su actividad comercial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garrantziak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igehiseriak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garrantziak asessoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

DONOSTIA
 Ibaeta Sarriena, 4. Solairua
 Telefonoa: 948 411822 Telefax: 948 411418
 web: info@asnappyme.com

ELIZONDO
 Sarriena, 51. Solairua
 Telefonoa: 948 580 506
 web: elizondo@asnappyme.com

LEIOA
 Sarriena, 1. Solairua
 Telefonoa: 948 262208 Telefax: 948 262149
 web: leioa@asnappyme.com

BURKAITZEA

ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
 © 948 599280 • URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO



OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONoz-MUGAIRI

SENPERE

Euskaltzaleen bilgune bilakatu da egun batez gehiago herriko aintzira

Ikas-Bik hezkunde nazionala auzitan ezarriko du eskuara ez errespetatzeagatik

Franck DOLOSOR

Aintziraren inguruan oinez edo airez ibiltzen ahal zen aurtengo Herri Urrats bestan, iaz bezala Europako tirolina luzeena martxan baitzen. Azken hogoita bat urteetan bezala Euskal Herriko xoko guzietako milaka lagun elgatu ziren aintziraren inguruan Iparraldeko ikastolak laguntzeko. Aurtengo irabaziek, Seaskak bikolegio berri eraikiko ditu Ziburun eta Larzabale aldean. Ikastolak haunditzen ari dira baina lan ainitz bada egiteko Seaskaren ustez. Hortako,

gure mintzairaren ofizialtasuna aldarrikatu zen berriz Herri Urratsen. Iparraldeko alderdi eta egitura publiko guztietako ordezkariak egon ziren bestan, hauen artean, Frantxoa Maitia eta Jean Lissar Akitaniako eskualdeko kontseilari sozialista eta berdea, Max Brisson kontseilari nagusi eskuindarra, eta AB, Elgar-Ensemble, EAJ-PNB eta EAko ordezkariak. Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburuak ere Senpereko bidaia egin zuen bere gober-



ARGAZKIA: FRANCK

Herri Urratseko sarrera ekitaldian hainbat jende ezagun izan zen.

namenduaren sustengua erakusteko Seaskari. Iparraldeko gazteek hegoaldeko selektibitatea euskaraz egin dezaketela gero Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko goraipatu zuen sailburuak. Berritasun huni esker, zubiak haundituko dira ipar eta hegoaldearen artean eta Iparraldeko gazte euskaldunek euskaraz ikasten ahalko dute hementik goiti Hegoaldean.

Renata Rosa kantari brasildarraren kantaldiaz gain, aurtengo hitz

ordu nagusia Fermin Muguruzaren kontzertua izan zen. Irundarraren nazioarteko bira Senperen hasi zen. Bere diska berriko obretaz gain, betiko kantuak entzun ahal izan ziren "Sarrri, sarrri" bezala.

Aurtengo Herri Urratsen eguzkia izan zen nagusi baina giroa doi bat iluna zen berriki bi euskaltzale ospetsu zendu direlaket: Andolin Eguzkitza euskaltzaina eta Manex Goienetxe historialaria eta ikastoleako historia erakaslea. Biak gogoan

izan zituzten Seaskakoek.

Bertzalde, eskuaren aldeko mezua izan zen Christine Bessonart auzapez anderearen hitzen ardatza nagusia. Bere ustez, zabalten ari den Europan euskaldunen berezitasunak atxiki behar dira, eta hauen artean mintzaira lehen lehenik.

Ikas-Bi elkarteak auzi bat eginen dio hezkunde nazionalari baliabide gutiegi baitu eskuara erakasteko. Ordezkeri euskaldunak faltatzeaz gain, mintzairaren paritate ez da errespetatzen kolegioetan. Ikas-Bik auzi bat irabazi du jadanik eta geroztik Iparraldeko ikasle elebidun guziek azterketak eskuaraz egin ditzakete.

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zelaia, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016. Fax: 948 625036 www.martiko.com

PELUAGA
60. urteurrena dela eta %20eko deskontuak
Maiatzaren 3tik 31ra

Colón Pasealekua 7 • IRUN • Tel-Fax: 943 622816

LARRALDEA SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
☎ 948 452121

AZKAIN

Sagarnotegi bat idekiko dute Lanzelaien

Saskibaloiko mutikoen minimex taldeak finala jokatuko du

Angela eta Xamo

Sagarnotegi bat idekia izanen da laster gure herrian. Denak orotzen gira Lanzelaien eraikia izan zen «Corysé Salomé»ren ixtorioa. Lantegia horrek ekarri behar zituen guti gora behera 50 lanpostu gure herriarentzat. Baina proiektua hori bururat eraman izan arren, zailtasunak hasi ziren agertzen. Eta azkenean, konkurrentzia sobera zaila zelako, lantegiak bere ateak itxi behar zituen, langile guziak langabezirat botatuz. Geroztik, eraikina zerratua egon da. Baina berri on bat agertu da duela guti. Herritar batek eraikina erostea proposatu dio nagusiari, eta negozioak finkatu ondoren, proiektu berezi bat muntatzen ari da. Eraikina zatituko du, parte bat berentzat atxikiz Donibaneko gimnastika el-

karte bat etorarazteko (aspalditik lokal handiago bat bilatzen zuelako), geldituko diren bertze parteak salduz. Hala nola erosle batek interesatua da sagarnotegi bat idekitzeko.

Saskibaloia

Saskibaloia "minimes" mutikoak departamenduko finalean airtuko dira heldu den maiatzaren 22an, Mirepeix taldearen kontra. Finalerdiko partida erreki irabazi dute Angelu taldearen aurka, 91-75. Jakin behar da gan den urtean ez zutela finalean aritzeko parada izan, finalerdian galdu zutelako txapel-dunaren kontra. Aurten, salbu bat, partida guziak irabazi dituzte. Emaiza horien arabera, erakutsi digute merezi dutela azkenean txapela gure herritar ekartzea.



Maiatzaren 1ean rubi eskolako besta

Gan den maiatzaren 1ean, gure herriak rubi eskolako txapelketaren 25 urteak ospatu ditu kiroletan baita ere xantako zelaietan. 1500 haur bildu dira, euskal herriko toki guzietatik. Orotara, gutti gora behera 4000 pertsona elgarretaratu dira bi zelaietan. Holako manifestaldi bat egiteko, antolatzailerek 120 bihotzon atxeman dituzte, gehienak azkaindik etorriak. Aspalditik ez ginuen ikusi hain beste herritar lan egiten ari manifestaldi baten antolaketaren inguruan. Partidak giro on batean jokatua izan dira. Iringarria zen nola haur guziak serioski eta lehiotsuki aritu diren. Eguna hori bukatzeko, laguntzerat etorri diren guziak bildu dira kirol ostatuan, afari baten inguruan. Besta gauean goiz bukatu da giro on batean.

ZOANSA

SEAT AUDI VW SALMENTA
 MARKA GUZIEN KONPONKETA
 Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05
 Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
 (Sarrera Beratik)

bentamiguel
 denota, jantzia eta osatua

Ongi zaindutako sukaldaritza
 Menuak aukeran

Talokara
 Ekizak
 Jantziak
 Untarategia

Ibardingo Lepoa • 948 631209

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
 CAFÉ DE LA MAIRIE
 MAIXAN ETA VÉRONIQUE
 SARA • TEL 0559542519

ARMUA Jatetxea
 Zugarramurdiko karretera 3. Km
 © 948 599 131 - URDAZUBI

SARA

Sarako Mendi Itzulia maiatzaren 30ean iraganen da

Urtxintxak eskubaloi taldea finalean arituko da

Xan eta Saski

Axuria mendizale elkartek hamargarren urtez antolatu du Sarako Itzulia. Aurten, 45 kilometrako luzera eta 2.200 metrako azpitik goitiak izanen dituen ibilbide gogorra izanen da: Saratik abiatu eta Suhalmendi, Santinazio, Iturriarreta, Larrun, Lizuniaga, Ibanteli, Lizarieta, Saiberri, Urioko erreka, Atxuria, Zugarramurdi eta Gaineko Menta igaro ondotik, berri ere Sarara itzuliko dira ibiltariak. Izen ematea polikiroldegian egin behar da, 6:30etatik goiti, 10 euro ordainduz. Abiadak 7:00etatik

8:00etara eginen dira eta heltzeak 16:00etatik 20:00etara. Ibilbidea egiteko gutienez 9 ordu eta gehienez 12 behar-ko dira. Ibiltari bakoitzak parte hartzeko txartela izanen du, baita ibilaldiaren xehetasunak ere. Horiek beharrezkoak izanen dira jan eta edan tokietan eta kontroletan.

Xehetasun gehiago interneteko <http://Axuria.monsite.wanadoo.fr> helbidean edo (0033) 0559542014 telefono zenbakian.

Axuria elkarteak, bi urtetatik behin antolatzen duen Sarako itzulihonetan hainbat mendizale espero dira, nahiz



ARGAZKIA: GARA

Sarako ikuspegi ederrak ikusteko modua izanen dute Mendi Itzulian parte hartzen duten ibiltariak. 45 kilometra eta hamar oren terdi inguruko ibilbidea izanen dute.

eta egun berean bertze zombait ibilaldi izan Euskal Herrian barrena. Ibilaldi on deneri!

Sarako Urtxintxak eskubaloi taldea finalean

